

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko azaroak 8 · 1331 zenbakia



ZAPORE APARTEKO OHITURAK

**BLACK
FRIDAY**

2MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontributatu optikan kanpamaren ezazuegierak.



8.95.1010

MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com



 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES · EIBAR

Etxea hemen
aukeratzen baduzu, oparia
aukeratzen duzu



Jai hauetan gure **GABONETAKO SASKIKO***
bi opari hauen artean aukera dezakezu
zure **ARRATE HOMES** etxea erosita.

* Kontsumitzaile lege-eremotik



AUKERATU ZURE OPARIA

Aprobetxatu aukera paregabe hau Eibarko bihotzean
obra berriko etxe batean bizitzeko.

Garajea | Gimnasioa | Gourmet aretoa

900 11 00 22 · neinorhomes.com

urriak 24 - azaroak 14



errigora.eus



**Eman bultzada,
indartu euskara**

**Agerreko uzta
euskarari puzka**

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Bihar Magosto jaia ospatuko da Urkizun As Burgas Galiziako Etxearen eskutik eta astelehenean Gaztañe jaiaren txanda izango da, Eibarko AEK-k kalejira eta merienda antolatatu duelarik. Gaztaina izango da protagonista datozen egunotan, baina barraskiloak dastatzeko aukera ere egongo da.



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Erreprezio ekonomikorik ez, gazte borroka geldiezina da

Aurreko urteko irailean Bilbon eta Gasteizen Aitor eta Galderren espetxearetzaren aurkako bina ekimen baketsu burutu zituen Ernai Gazte Antolakundeak eta, guztira, 133 gazte izan ziren identifikatuak. Hilabeteak geroago, identifikatutako kide guztiak mozal legearen bitartez isunduak izan ziren; Gasteizko ekimenean parte hartutakoek 1.500 euroko isunak jaso zituzten eta Bilbokoek, berriz, 2.500 eurokoak. Guztira, 290.500 euroko kolpe ekonomikogor bat jaso zuen gazte antolakundeak. Ernaitik ez dugu ausazko gertakari bat bezala ikusten, gure antolakunde ekonomikoki itozteko xede garbia duen eraso bat bezala baizik.

Aurreko guztiari erantzun bat emateko helburuz, jasotako isun bakoitzeko helegite bana aurkeztu genuen segurtasun sailaren partzialtasuna eta gehiegikeria salatzeke eta epaiketa datorren azaroaren 28an izango da. Bestalde, azpimarratu nahi dugu zulo ekonomiko honi aurre egiten bagabiltzala jada eta edonork hiru modu dituela ekarpen ekonomikoki egiteko:

1. Jadanik abian jarri dugun Crowdfunding-aren bitartez (ES14 3035 0108 01 1080050918 kontura trasferentzia "dohaintza" kontzeptuarekin).

2. Gure mertxana erosiz, gure webgunean ageri dena edota sare sozialetara idatziz lor daitekeena (ernai_eibar instagramean).

3. Abenduaren 2an burutuko den zozketako boletoa erosiz.

Zabaldur bidegabekeria hau lau haizetara eta parte hartu laster antolatuko ditugun ekimenetan!

Eibarko Ernai

Hortik esanak



2020ko hauteskundeetan 158 milioi estatubatuarrek (%67k) eman zuten botoa. Dozena erdi estatura murrizten da benetako lehia. Trump presidentegai errepublikanoak 2016an Michigan, Wisconsin eta Pennsylvanian guztira 88.000 botorengatik irabazi zuen presidentetza. Bidenek 2020an Georgia, Arizona eta Wisconsinen guztira 44.000 botorengatik irabazi zuen. 2024ko hauteskundeak estatu lehiakor horietako 100.000 botoen arabera erabakiko dira. Demokratek eta errepublikanoek politika bera dute Israeli dagokionez. Horregatik, Harris botoa emango diogunek badakigu Gazako garbiketa etnikoaren alde ari garaela bozkaten. Trumpen aurka bozkatzea inperatiboa da, baina Harrisen alde bozkatzea ere kostatzen da.

JOSEBA ZULAIKA, antropologoa

Ez naiz 200 edo 300 litro metroko euria egingo balu zer gertatuko litzakeen pentsatzen hasi, nahikoa litzateke 100 litro egitea. Duela hilabete batzuk 40 litro egin zituen Lazkaon eta ikusi genituen hango kalteak. Gure lurraldeari begirada ematea nahikoa da etorkizun posible bat irudikatzeke: ibaiak kanalizatuak, etxe eta lantegiak ibaien ertzertzean eginda, mendi-maldak pistaz beteak (asko eta asko behin-behinekoak, pinudiak matarrasean ateratzeko), errekek hodiekan sartuta, ibai-bazterrak urak erraz eraman ditzakeen zuhaitz edo eraikin ahulez beteta... Eta autoak ez aipatzea hobe izango da. Ez da ingeniari izan behar norbere herriari begiratu eta ura nondik jaitziko litzatekeen konturatzeko. Ez naiz teorizatzen ari, ni Zarautzen nibel baxuenean dagoen kalean bizi naiz, eta euri-jasa handien abisua den bakoitzean beldurrez egoten gara. Ez da beldur literarioa, benetakoa da.

MARTXEL AIZPURUA, Berria-ko eskutitza

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PASAGARRI → Balekoa, oraindik balio duena. "Emon dittuan soñekuak pasagarrixak dira ondiokan".

Pasabidea, gaztelerazko 'pasarela'. "Pasagarrixa ipiñi biharko da hamen, ibaixa igarotzia bada".

PASAIXA → Ibia, pasabidea. "Ibaixan alde batetik bestera zan pasaixa, harpozuekin eginda".



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 8
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
ZAPATUA 9
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
DOMEKA 10
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
ASTELEHENA 11
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
MARTITZENA 12
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 13
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
EGUENA 14
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Maria Luisa Arakistain Azpiri.**
92 urte. 2024-10-24.
- **Jesus Mari Unamuno Gorrotxategi.**
78 urte. 2024-10-26.
- **Luis Del Rey Calvo.**
93 urte. 2024-10-27.
- **Eduvigis Alonso Gomez.**
89 urte. 2024-10-27.
- **Angeles Fernandez Velo.**
88 urte. 2024-10-28.
- **Victoria Elorriaga Olañeta.**
78 urte. 2024-10-28.
- **Iciar Gonzalez de Audikana Gallastegi.**
92 urte. 2024-10-29.
- **Julen Iriondo Jauregi.**
92 urte. 2024-10-30.
- **Roberto Magunazelaia De la Cruz.**
78 urte. 2024-10-31.
- **Roman Egidazu Gorostidi.**
87 urte. 2024-11-01.
- **Enrique Martinez Astigarraga.**
81 urte. 2024-11-01.
- **Benito Rico Lopez.**
86 urte. 2024-11-02.
- **Manuela Diaz Duarte.**
94 urte. 2024-11-03.



Valentziako kaltetuei laguntzeko era guztietako ekimenak abiatu dira herrian

Valentzian gertatutako hondamendiaren aurrean eibartarrek elkartasuna adierazten dihardute egunotan, eta ekimen ezberdinei esker bildutako material asko Valentziara bidali dute honezkeroko. Horrekin batera, Eibarko Udalak, Alkatetzaren proposamenez, 6.000 euroko partida bat bideratzea erabaki du, laguntza humanitario gisa, urriaren 29an Valentziako Erkidegoa, Gaztela-Mantxa, Andaluzia eta Murtziako Eskualdea gogor astindu zituen DANak (Depresio Isolatua Maila Altuetan) kaltetutakoei laguntzeko. Eibar-Ermua Gurutze Gorriaren bidez bideratuko dute.



Sanandresak ospatuko dituzte Gasteizen

Gasteizen bizi diren eibartarrek XXIV. San Andres Eguna ospatuko dute azaroaren 23an. Toloño jatetxean izango da bazkaria, 15:00etan, eta joan nahi dutenek aurretik 40 euro ordaindu behar dituzte, izen-abizenak argi ipi-

nita. Ordainketa Bizum bidez egin behar da, 636631535 telefono zenbakian (Fernando Arizmendi), edo telefono zenbaki horretara deitu, transferentzia nola egin azaltzeko. Izena emateko azken eguna azaroaren 18a izango da.



Laster jakingo dugu pintxo lehiaketako irabazleak zeintzuk diren

Eguaztenean hasi eta atzora bitartean jokatu da Arrate Kultur Elkar-teak antolatutako Eibarko tabernarien arteko XX. Pintxo Lehiaketa "San Andres Sariak", parte hartu duten 16 tabernetan: Akara, Amesti, Banaka, Baratze Gourmet, Bossa, Bulebú, Gure Leku, Kontent, Koskor, Kultu, Nuvola, Slow, Topa-leku, Trinkete, Txoko eta Vinoteca Bacoleku Ego-Gain. Laster emango dituzte ezagutzera irabazleen izenak, eta sariak San Andres egunean banatuko zaizkie, azokako beste saridunei bezala.

Euskadiko Memoriaren Egunaren harira bi ekitaldi egingo dira domekan

Azaroaren 10ean Memoriaren Eguna ospatzen dela eta, Eibarko Udalak herritarrentzako bi ekitaldi antolatu ditu domekarako: 12:00etan minutu bateko isilunea egingo da, Untzaga plazan. Eta, jarraian, 12:05ak inguruan, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei omenaldia egingo diete, udaletxeko patio nagusian. Udaletik eibartar guztiak bat egitera gonbidatu nahi dituzte, "biktima guztiak oroitzeko".



Bono-txartelen salmenta astelehenean, 10:00etan hasiko da, eta Internet bidez erosi beharko dira

menarekin bat egin duten Eibarko merkataritza, zerbitzu, ostalaritza eta elikadura-establezimenduek hartuko dute parte. Hiru sektoretarako (merkataritza eta zerbitzuak, elikadura eta ostalaritza) kanpaina izango da, eta bakoitzerako txartel-bonu bereziak egongo dira. Bonuek %20 eta %30 arteko deskontuak eskainiko dituzte, eta kanpainak abenduaren 5era arte iraungo du.

Astelehenetik aurrera salgai

Bono-txartelen salmenta astelehenean, 10:00etan hasiko da, eta Internet bidez erosi beharko dira nahitaez, www.erosieibarren.eus helbidean. Kanpaina honetarako 4.850 bonu jaulki dituzte guztira, eta Udalak 75.000 euro eman ditu. Eibar Merkataritza Gune Irekia elkartarekin eta Nafarroako Rural Kutxarekin elkarlanean egingo da.

Oparitu Eibar txartelen zozketa eta erosketa-bonuak, merkataritza sustatzeko ekimen berriak

Azaroaren 1etik 10era, Eibarko Dendarien Elkarteko kide diren eta kanpainarekin bat egin duten saltokietan erosketak egiten dituztenek, 50 euroko Oparitu Eibar txartelaren zozketan parte hartuko dute. Txartel horietako bat eskuratzeko bi modu daude: Eibar Txartelarekin ordaintzen dutenen artean, 36 txartel zozketatuko dira ausaz, eta

gainerako 24ak ordainketa beste bide batzuetatik egiten dutenen artean zozketatuko dira. Denda bakoitzean ipini duten kutxan erosketa-tiketa lagatzen duten bezero guztien artean egingo da zozketa, abenduaren 15ean.

Horrekin batera, astelehenean udazkeneko bono-txartelen kanpaina berria abiatuko dute. Eki-

Untzagan
LIBURU
eta Disko

Azaroaren 8tik
17ra

AZOKA
Eibarren

ORDUTEGIA
astean zehar
11:30-13:30 / 17:30-20:30
asteburuan
12:00-14:00 / 17:30-20:30

AUKERAKO
LIBURUAK
EUSKAL
DISKAGINTZA
Euskadiko Liburu
Ganbararen eskutik



Pentsio duinen aldeko borrokari esker beste aurrerapauso bat eman dute pentsiodunek

Aste honetan ere pentsio duin eta publikoen aldeko elkarretaratzea egin zen astelehen eguerdian Untzagan, Eibarko Pentsionista Taldeak deituta. Ospakizunerako eguna izan zen, gainera, astelehenean bertan jakin baitzuten Eusko Legebiltzarreko Mahaiak pentsiodunek erregistratutako Herri Ekimen Legelearen

proposamena izapidetzea onartu duela, baita aurreikusitako izapidetze prozedurak hastea ere. Sei urtetik gorako borroka nekazinari esker pentsioen aldeko borrokan beste pauso bat aurrera eman dute. Horrekin animatuta, pentsiodunen borrokarekin jarraitzeak merezi duela inoiz baino argiago daukate.

Alarguntzat ate irekien jardunaldiak antolatu ditu biharko Altzoa elkarteak

Altzoa alargunen elkarteak ate irekien jardunaldia egingo du bihar Eibarren, Coliseo antzokian. Goiz osoan zehar mahai-inguruak eta hitzaldiak egongo dira, eta ondoren bazkaria egingo dute, Unzaga Plaza hotolean. Egitaraua 10:00etan hasiko da, bertaratutakoei egingo zaien harrerarekin, eta irekiera ofiziala 10:45ean izango da. Lehen mahai-ingurua 11:00etan izango da: Cristina Gomez Diaz, Arrate Aranceta Iriondo eta Esperanza De la Mano Ramos izango dira solaskide. Ondo-

ren, 11:30ean, kafea hartzeko atsedena egingo da. Ekitaldian Emakundeko eta Alargunen Federazio eta Elkartearen Konfederazioko (CONFAY) agintariak ere izango dira. Eguerdiko 12:00etan, "Envejecer siendo mujer. La importancia del tejido asociativo" izeneko hitzaldia emango du Monica Ramos Torok, eta ondoren mahai-ingurua eta gaiaren inguruko solasaldia egingo dira. Virginia Imaz Quijerearen "Clowncusiones" clown-ikuskizunarekin amaituko da ekitaldia, 13:20ean.

XXXIV. San Martin azoka ospatuko dute bihar egun osoan Ermuan

Euskal Birusa Elkarteak antolatzen du azoka hau 1990etik, ermuarren artean euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin. Helburu horri begira, azokaz gain, kultur eta kirol jarduera asko biltzen dituen egitaraua prestatu du elkarteak aurten ere. Berrogei herritar inguruk jardun dute batzorde ezberdinetan antolatuta, hainbat erakunderekin eta eragilerekin batera eta, egunean bertan, 200 euskaltzale boluntario arituko dira lanean. Horiei guztiei esker gauzatzen da herritar askorentzako "urteko egunik bereziena" den azoka egun hau. Berrogei ekoizle izango dira guztira eta postuetan denetik egongo da: frutak, barazkiak, ogia, ezitia, gazta, sagardoa, txakolina, gozogintza, marmelada, garagardoa, ahatekiak... Gainera, hamahiru artisau izango dira.



Urkiko jaiak antolatzeko dirua bilduko dute

Urkiko Jai Batzordea buru-belarri lanean ari da auzoko jaiak presartzeko. Azken asteotan zenbait ekintza antolatu dituzte, tortilla lehiaketa tarteko, eta orain itsulapikoak jarri dituzte herriko hainbat denda eta tabernatan dirua biltzeko asmoz.



Euskaraldiaren enbaxadore izango den hamaikakoa aurkeztu dute

Datorren urteko maiatzaren 15etik 25era egingo den Euskaraldiko hamaikakoa aurkeztu zuten atzo, Bilboko Bidebarrieta kulturgunean. Euskararen erabilera aktibatze-ko mugimenduaren enbaxadore izango dira komunikazioa, kirola, musika edo sukaldaritza bezalako esparruetan aritzeagatik ezagunak diren lagun hauek, eta honakoak dira: Eneko Atxa Azurmendi, sukaldaria; Oihana Azkorbebeitia Urizar, mendi lasterkaria; Aitor Bengoetxea Zabalza, musikari eta break dantzaria; Lutxo Egia del Rio, idazlea; Eneko Garcia Jaurena (Albina Stardust), trabestia; Ana Goitia Erkiaga, kazetaria, aurkezlea eta umoregilea; Itziar Ituño Martinez, aktorea; Roberto Moso Gil, komunikatzailea; Zibel Untsain Damestoy, dantzaria; Esti Urresola Solaguren, zinemagilea; eta Mikel Urrutikoetxea Azkueta, pilotaria. Euskaraldiaren lehen edizioan bezala, talde anitza osatu dutela diote antolatzaileek.

Udalak auzokideei entzuteko egiten dituen bilerak atzo hasi ziren, Beheko Tokian

Atzo hasi eta azaroaren 26ra bitartean, zazpi bilkura egingo dituzte udal-ordezkariek herriko auzo ezberdinetan. Alkatearen berbetan, “urtetik urtera ikusten ari gara ekimen honek oso harrera ona duela, eta aukera ona dela gure auzoetako kezkak, beharrak, iradokizunak eta ideiak gertutik ezagutze-ko”. Lehen bilera atzo egin zuten, Beheko Tokia jubilatuen etxean. Hurrengoak, berriz, martitzenean izango da: eki-erdiguneko bizilagunekin batuko dira, 19:00etan

Coliseo antzokian. Eguaztenean Legarreko auzokideekin bilduko dira, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Azaroaren 17an Amañako auzokoen txanda izango da, parrokiako lokaletan. Hurrengo bilera hilaren 20an izango da eta Ipuruako jubilatuen etxean egingo dute. Hilaren 21ean, Urki auzokoen txanda izango da, parrokiako lokaletan. Eta, amaitzeko, hilaren 26an erdiguneko bizilagunekin egingo dute batzarra, Untzagako jubilatuetxeko lokaletan.

SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA

AZAROAK 22 COLISEO 20:00

AMETS ARZALLUS	JONE URIA	ALAI MARTIN
AITOR MENDILUZE	JEXUX MARI IRAZU	MAIALEN LUJANBIO

GAI-JARTZAILEA JON MIKEL MUJIKA

-sarrerak egunean bertan salgai **8€**

ANTOLATZAILEA

eta kitto!

euskara elkarte

BABESLEAK



Gaztainak musika eta dantza artean

Badaude galtzen ez diren tradizioak. “Industriagintzak aurrera doazen neurrian galduaz doaz nekazaritzako ohiturak; baina, hala ere, badira hainbat gauza industria hirietan ere irauten dutenak, eta horietako bat dugu Gaztañerre eguna”, aipatu zuen Juan San Martinek ‘Gogoz’ liburuan. Antzina gaztaina neguko oinarritzko elikagaia zen, eta gaur egun men egiten jarraitzen diogu musikaz eta dantzaz inguratuta.

Eibarko AEK euskaltegiak 1987-88 ikasturtean berreskuratu zuen Gaztañerre ospatzeko ohitura. “Plaentxian eta Ermuan ospatzen zela bagenekien eta, hemengo ohitura izanik, berreskuratzea merezi zuela pentsatu genuen”, esan digu AEK-ko Iker Amuategi Basauri ‘Txisto’-k. “Elkar-tegastronomiko batzuetan ospatzen zen eta jendea orain baino gehiago irteten zen, baina galzorian egon zitekeen festa zela ikusten genuen”.

Gaztañerre ospatzeko eguna zein den jakiteko ikerketa egin zuten AEK-koek, eta Juan San Martinen ‘Gogoz’ liburuan eta irakasle adituen oroitzapenetan (Kontxa eta Itziar Laspiur, adibidez) aurkitu zuten erantzuna: “Arimen egunetik bigarren astelehenean ospatzen zela”. Zera gehitzen du Txistok: “Hasieran jai paganoa zen, udazkeneko eta neguko jaien arteko konexioa, eta gaztainak ziren tarteko, ondrazanak ziren hildakoen omenez”.



Istorio hori AEK-ko ikasleei transmititzen hasi ziren eta, tradizioa hedatzeaz gain, klaseetan Gaztañerren inguruko unitate didaktikoalantzen dute. “Kurtso hasiera izanik, ikasle askorentzat lehen aukera izaten da mintzapraktikarako”, diosku AEK-ko irakasleak. Hori bai, ospakizuna izanik, festa ere antolatzen dute Gaztañerren inguruan. “Lehenengo urteetan udaletxeko arkupeetan ospatzen genuen”, gogoratzen du Txistok. Afari autogestionatuak egiten zizutuzten, bakoitzak berea eramaten zuten, baina batzuetan azaroan eguraldiak ez du asko laguntzen eta, “dantza, kantua eta jana egon arren, txamarrarekin egon behar ginen”, diosku Txistok.

Udaletxetik Orbea frontoira pasa zuten Gaztañerreko afaria, baina hainbat urteren ondoren frontoia bota egin zuten. Beraz, Armeria Eskolara mugitu zuten ospakizuna. “Hango patioan egiten genuen, bai-



Eibarko AEK-k 37 urte daramatza Gaztañierre ospatzen eta egun berezia izaten da bertako ikasleentzat. SILBIA HERNANDEZ

na urteekin giroa hozten joan zen, parte-hartzaile kopurua ere jaitsi egin zelako”, diosku AEK-koak.

Gauzak horrela, egoera horri buelta emateko asmoz, afari formatua albo batera laga eta kalejira egitea erabaki zuten, jaia herriko auzoetara zabaltzeko asmoz. Aurten, adibidez, Amañara joko dute 19:00etan Paloma tabernan elkartu eta Ipurua zeharkatu ondoren, Musika Eskolako trikitilariak lagunduta euskal kantak abestuz. “50-60 lagun inguru elkartzen gara urtero eta aurten ere horrela izatea espero dugu. Egia da AEK-ko ikasleentzako plana izaten dela, baina gonbidapena irekia da eta edozein euskalzale edo kantuzale etorri daiten gurekin”, azaldu digu AEK-ko Jone Olaizolak.

Amañan, Amesti tabernan merienda egingo dute, 20:00ak inguruan. “Tradizioari eusteko, egunak eskatzen duen bezala, gaztainak jango ditugu”, diosku Olaizolak,

>>> As Burgas Galiziako etxeak bihar ospatuko ditu magostoak, eta astelehenean Gaztañerreren txanda izango da AEK-ren eskutik

“baina beste mokadutxo batzuk ere emango ditugu”.

Lehen aldia izango da Gaztañerreko kalejira Amañara joaten dena, baina ez da aurtengo berrikuntza bakarra izango. “Errigoraren kanpainaren sasoia da eta bere produktuak zozketatuko ditugu”, azaldu digu Olaizolak.

Magosto jaia bihar

Gaztañerreren parekoa den Festa do Magosto ospatzen da Galizian, eta baita hemen ere, As Burgas Galiziako Etxeak urteetan eutsi baitio tradizio horri Eibarren. “Uste dut Galiziako Etxea sortu zenetik ospatzen direla magostoak Eibarren, eta

Galiziako Etxea 1984. urtean sortu zen. Orduan ni ez nengoen hemen eta ezin dut ziur esan, baina horrela dela uste dut”, diosku As Burgas etxeko Marisol Colmenerok. “Harrezkero, jende ugari elkartzen da festa ospatzeko. Denoi gustatzen zaigu ospakizunak egitea!”.

Bihar ospatuko dituzte magostoak, 18:30etik 22:00era, jatekorik eta musikarik faltako ez den egitarauarekin. “Gaztaina erreak, txorizo pintxoak, lakoia eta enpanada salduko ditugu, eta Ribeiro ardoa eta garagardoa ere ez da faltako”, diosku Colmenerok. Hori guztia musikaz jantziko dute, Os Galaicos gaita-taldeak girotuko baitu Magosto jaia.



Etxegiña tabernan tradizioari eusten diote eta barraskiloak enkarguz egiten dituzte. EKHI BELAR

>>> Etxegiña tabernan barraskiloak egiten ikasi dugu eta Pedro Ruizek gaztaiña erreak nola egiten diren erakutsi digu

Gasteizetik gaztainak saltzera

Gaztañeren, nola ez, gaztainak dira protagonista. Azken asteotan kaleak gaztaina erreen usainarekin lurrindu dira eta Pedro Ruiz Gutierrezen tren itxurako salmentapostuan etengabe gelditzen dira gaztaina erre berriak dastatu nahi duten eibartarrak.

Martitzena da eta 20 gradu inguru egiten ditu, hau da, Pedrorentzat salmentarako egunik txarrena da

eta negua gerturatzeko baino udara hurbiltzen ari dela dirudien sasoa bizi dugu, baina bere trenetik darion keak jendea erakartzen du berdin-berdin. “Gaur eman dozena pare bat, atzo dozena batek bi minutu iraun zizkidan eta”, esaten dio erosle batek.

Gasteizkoa da Pedro eta urriaren erdialdetik urtarrilaren erdialdera arte egunero etortzen da Eibarre-ra gaztainak saltzera. 22 urte egin

ditu horrela, sei gaur egun Toribio Etxebarria kalean duen postuan, eta oso aurpegi ezaguna da eibartarrantzat.

Azken bi hamarkadetan Eibarren eta oro har gizartean egon diren aldaketan lekuko izan da Pedro, eta horrek bere negozioari eragin diola azaldu digu: “Ohiturak asko aldatu dira. Lehen, adibidez, txikitero taldeak ikusten zenituen egunero eta gaur egun oso gutxi dira. Umeeke ere gero eta gaztaina gutxiago jaten dituzte, nahiago dituzte bestelako litxarrikeriak”. Beretzat, pandemia mugarri izan zen gure ohituretan. “Harrezkero, asko jaitsi da kalean dabilen jende kopurua, erosteko ohiturak... salmentetan igarri dut”, diosku.

Kalitate goreneko gaztainak eskaini nahi ditu Pedrok eta arreta handia jartzen die erretze-prozesuan. “Gaztainak Galiziatik ekartzen ditut. Batzuek toki bateko eta besteko gaztainak nahasten dituzte eta igarri egiten da. Duten urarekin ere kontua eduki behar da. Jendeari gaztainak erraz zuritzea gustatzen zaio eta horretarako berebizikoa da kalitatezkoak izatea”, azaldu digu. “Aurtengoak oso onak daude”, berresten du.

Barraskiloak egiten maisuak

Tabernaren izenak iradokitzen duen bezala, etxeko usaina nabaritzen da Etxegiñako sukaldean. Bittor Sarasketa kalean dagoen tabernako sukaldean sartu bezain laster barraskiloz beteriko buztinezko kazola ikusi dugu, eta alboan bandeja bat gaztaina. Barraskiloak enkarguz egiten dituzte eta eskaera asko jaso dituzte egun hauetarako. Lan eskerga dute aurretik Ameliak eta Montxok, maitasun handiz egiten duten lana.

Lagun batzuen eskariz hasi ziren barraskiloak prestatzen. “Tabernara etortzen zen kuadrilla batek barraskiloak egitera animatuko nintzen galdetu zidan. Ordura arte ez nuen inoiz barraskilorik egin, ez nekien egiten, baina baietz erantzun nien, noski”, gogoratzen du barrez Montxok.

Ordagoa hartu eta barraskiloak prestatzen ikasi zuen Montxok. “Garrantzitsuena barraskiloak ondo garbitzea da. Gero, saltsa norberaren gustora egiten da. Nik ez ditut osagaien neurriak apun-



Pedro Ruizek 20 urtetik gora daramatza herrian gaztainak saltzen. EKHIBELAR

tatzen, probatzen joaten naiz eta horrela egiten dut”, azaldu digu.

Ondo egiten omen ditu, barraskiloekin duen abilezia ahoz aho zabaldu baita gaur egunera arte. Sasoi honetan eta Gabonetan jasotzen dituzte eskaintza gehienak, baina eurek urte guztian zehar egiten dituzte barraskiloak. 12 euroren truke dastatu ditzakezue. Gozatu.

BIDEOA



55 urtetik gorako boluntarioak helburu

“Orain duzu aukera, egin zaitez boluntario” goiburuararekin, Atzegiko aurtengo kanpainak Gipuzkoako pertsona guztiak eta, bereziki, 55 urtetik gorakoak, Atzezin boluntario bezala parte hartzera animatu nahi ditu. Nabarmendu dutenez, boluntarioek egiten duten lana ezinbestekoa da Atzegik antolatzen dituen jarduera gehienak aurrera atera ahal izateko.



Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkartetik adierazi ditudenez, “boluntarioen lana ezinbestekoa da elkartean antolatzen diren ekintza askotan eta, urtean zehar, 350 lagun inguru aritzen dira gurekin, boluntario gisa. Historikoki, boluntarioak gazteak eta ikasleak izan dira gehienbat, baina azken urteetan beste adin bateko jendea ere animatu dela nabaritu dugu: 50 bat urtetik gorakoak gure boluntario taldera gehitu dira, kasu askotan denbora libre gehiago dutelako, eta Atzezin oso lan garrantzitsua egiten ari dira. Fokua belaunaldi horretan jartzea erabaki dugu, oro har denbora libre gehiago izan dezakeelako, eta egin dezakeen ekarpena oso handia delako”.

Horregatik, aurtengo kanpainak Gipuzkoako pertsona guztiak eta, bereziki, 55 urtetik gorakoak, Atzezin boluntario bezala parte hartzera animatu nahi ditu. Nabarmendu dutenez, “boluntarioen lana oso beharrezkoa da. Gainera, gogoan izan behar dugu ekintza hauek adimen desgaitasuna dutenen bizitza kalitatea hobetzen laguntzen dutela, bereziki euren aisialdian. Boluntario gisa aritzeko modu asko daude, eta horregatik jendea elkartearen jardueraren batean parte hartzera animatu nahi dugu”.



Ane Larizek (argazkian erdian) zapatu arratsaldeetan Eibarren paseatzen ibiltzen den taldeetako batekin dihardu, eta pozarren dago. Hala ere, batzuetan plana bertan behera laga behar izaten dute, boluntarioak falta direlako. SILBIA HERNANDEZ

Askotariko jarduerak

Boluntarioen parte-hartzea behar izaten duten jarduerak askotarikoak dira: “Taldean edo banaka egin daitezke. Dagoeneko antolatuta dauden jardueretan parte har dezakete, hala nola mendi irteeretan, foballean edo txangoetan. Baina bestelako planak ere izan daitezke, hala nola kafe bat hartzea, erosketak egitera joatea, edo paseatzera irtetea. Gainera, adimen-desgaitasuna dutenekin aisialdia partekatzeo aukera izatea ere bultzatu nahi da, zaletasunak eta kezak partekatzeo aukera izan dezaten”.

Zapatu arratsaldeetan Eibarren ibiltzen den taldeetako batean boluntario den Ane Larizek bere esperientzia kontatu digu: “53 urte dauzkat eta, nire adineko beste askok bezala, orain lehen baino denbora libre gehiago daukat, eta boluntario gisa aritzeko gogoia piztu zitzaidan orain dela urte batzuk. Interneten aukerak begiratzen hasi eta Atzegirekin kontaktuan ipini nintzen. Oso gustora ibiltzen naiz, ahal izaten dugun guztietan kalera irteten gara, 16:30etik 19:30era, eta beste edozeinek egiten duena egiten dugu guk ere. Gure gauzei eta lanari buruz berba egin, zerbait hartu... Pozarren nago, eta taldea lagatzea burutik pasatu ere ez zait egiten”.

Atzegotik diotenez, “boluntariotza gazteen kontua dela egon daitekeen aurreiritziarekin hautsi nahi dugu, eta motxila esperientziaz beteta eta ekarpen handia egin dezaketen pertsona horiengana iritsi. Hala, Atzegik interesa izan dezaketen pertsona guztiak bulegora gerturatzera, edo 943 42 39 42 telefonora deitzera animatu nahi ditugu. Irrikitan gaude pertsona horiek guztiak ezagutzeko, eta haien profilerak gehien egokitu daitekeen jarduerak eskaintzeko”.

Atzegik antolatzen dituen ekintzetan boluntario aritzeko hamaika modu daude, eta beraien laguntza barik ezinezkoa litzateke jarduerak gehienak garatzea

Atzegiren sentsibilizazio kanpainaren bideoa ikusteko:





Berbalagunek Hondarribia bisitatu zuten

Eguraldi txarrari aurre eginez, Hondarribian izan zen berbalagun talde bat. Euria zela-eta, ezin izan zuten hitzortuta zuten bisita gidatua egin, baina Turismo Bulegoko gidariaren azalpenak entzuteko aukera izan zuten bulegoan bertan. Hondarribian bazkaldu ondoren itzuli ziren Eibarrera.

Ardogintza ekologikoari buruzko saioa eskaini du Illunabarriane

Azpea upategiko Gorka Perez aditua etorri da ...eta kitto!-ra bertan lantzen duten ardogintza ekologikoaren inguruko azalpenak ematera. Hango bost ardo dastatzeko aukera eskaintzeaz gain, ardogintzari buruzko azalpen interesgarri ugari ekarri zituen nafarrak. Illunabarrian programaren barruan antolatu du saio hori ...eta kitto! Euskara Elkarteak.



Kalean da urriko Txikitto!ren alea, hainbat berritasunekin

Joan den astean jaso zuten eskolan 6 eta 12 urte bitarteko ume guztiak Txikitto! hilaetekariaren urriko alea. Ikasturte berria hainbat berritasunekin hasi du aldizkariak, hala nola "Horoskopoa" eta "Di-da batean" atalak. Horrez gainera, Al-datze eskolako ikasleekin elikadurari buruz hitz egin dugu, eta Mari Carmen amama eta Maren bilobarekin solasean jardun dugu.

ILLUNABARRIAN

Hilabete honetako ikastaroa

Saama terapia 3.0
Ongizate fisiko, emozional
eta mental energetikoa
eta espirituala



Hizlaria: Begoña Ogiza
terapeuta
Noiz: Azaroak 19, martitzena
Ordua: 18:30-21:30
Lekua: ...eta kitto! Euskara
Elkartea
Izen-ematea:
943200918/
elkartea@etakitto.
eus/www.etakitto.eus
Prezioa: 5 euro (4 euro€
elkarteko bazkideentzat)



Gaur itzuliko da auzoetara Barixakuak Jolasian ekimena

Egigurentarreneko parkean egingo dira hilabeteko lehenengo jolasak. 17:00etatik aurrera ordubeteko jolas dibertigarrietan parte hartu ahal izango dute 2 eta 8 urte bitarteko haurrek. Hurrengo barixakuan Torrekuako parkeak hartuko ditu jolasak, eta azaroaren 22an, berri, Urkizukoak.



Merkatarien ahalegina saritu nahi du eguenean egingo den Merkataritza Galak.

“Euskeraz Primeran!” Merkataritza Galak euskara sarituko du

Datorren eguenean, hilaren 14an, arratsaldeko 20:15ean Coliseo antzokian ospatuko den Galan herriko hainbat establezimendu euskararen erabilera handitzeko hartutako konpromisoak betetzea sarituko du ...eta kitto! Euskara Elkartek.

Euskeraz Primeran! programa 2014an jaio zen ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik eta egun 400tik gora establezimendu daude proiektuarekin bat eginda. Hainbat ekimen eta kanpaina garatu ditu ...eta kitto!-k denda eta tabernetan euskararen presentzia zein erabilera sustatzeko, eta materialak ere prestatu eta banatu ditu: janari eta elikagai posterrak, tabernetarako eskuliburuak, mahai-oihalak eta QR kodeak, jantzi, zapata eta

osagarrien posterrak, eskuoihalak, azukre zorrotxoak, euskal musika zerrendak tabernentzat...

Horretaz gain, oso garrantzitsua da urte osoan zehar elkarteak doan eskaintzen duen itzulpen eta zuzenketa zerbitzua, momentuan, whatsapppe ere erantzuten dena eta eguneroko menuak, ohar laburrak, sare sozialetarako mezuak... euskaraz izan daitezen laguntzen dutenak.

Kanpaina eta ekimenen artean badira bi aipamen berezia merezi dutenak: gilda lehiaketa, aurten abenduaren 10, 11 eta 12an izango dena, eta neguko zein udako merkealdien azokan edo factoryn-a, non ...eta kitto!-k bezeroengan eragiteko asmoz postutxo bat izaten duen, jarduera ludikoren bati lotua, euskararen erabilera bultzatzeko edo sensibilizazioa lantzeko.

Baina aldaketak emateko benetako ahalmena dutenak dendari eta tabernariak dira, euren erabakiek (lehen hitza euskaraz egitea, denda barruko oharrak euskaraz egotea...) eragin zuzen-zuzena baitute elkarrizketak euskaraz izateko orduan.

Horrela, batzuk gaitasun edo ohi-tura faltagatik, lehen hitza euskaraz egitera mugatzen dira. Keinu txikia eta merkea bada ere, izugarritzko eragina duen praktika da, hortik aurrera elkarrizketa euskaraz izateko aukerak handiagoak direlako.

Merkatarien ahalegina saritu

Beste dendari eta tabernari batzuk, aldiz, erronka handiagoak hartu dituzte, hala nola sare sozialetan euskara erabiltzea, erakusleho zein establezimendu barruko idatzizko oharrak euskaraz ere izatea... Merkatarri bakoitzari euskaraz egin zezakeenaren araberako neurriak proposatu zaizkio eta, onartzeaz gain, bete ere egin dituztenei sari edo oroigarri txiki bat emango zaie eguenean.

Elkartetik adierazi dutenez, ospakizun bat izatea nahiko lukete: “Eibarko merkatarriak zoriondu nahiko genituzke egunero egiten duten ahaleginagatik, Eibarren kalitatezko eta gertuko produktuak eta zerbitzua ematen dizkigutelako, herria bizirik mantentzen dutelako eta euskararen erabilera handitzeko ezinbesteko gakoak direlako. Horregatik, saria jaso edo ez, programako partaide diren guztiak gonbidatu ditugu Galara, denak direlako ezinbestekoak”.

Galan, merkatarri bakoitzak bere saria jasotzeaz gain, musika emandiren bat ere izango da eta antolatzaileek aurreratu nahi izan ez duten sorpresaren bat edo beste ere bai.

“Trumpek demaseko babesa jaso du, baita irabazi ez duen estatuetan ere”

ASIER BLAS • Nazioarteko politikan aditua



Alderdi Errepublikarreko Donald Trumpek Amerikako Estatu Batuetako (AEB) hauteskundeak irabazi ditu bozetan Alderdi Demokratako Kamala Harrisi gailendu ondoren. Bigarren legegintzaldia izango da Trumpentzat, 2017tik 2021era presidente izan baitzen. Polemikak inguratzen du Trump, baina hori ez da oztopo izan garaipen argia lortzeko.

Atzo, hilak 7, AEB-ko sistema politikoaren eta 2024ko hauteskudeen inguruko hizaldia eman zuen Asier Blas de Mendoza nazioarteko politikan adituak. Eguazteenan, gainera, Eibarko EHUn egon zen unibertsitateko errektore izateko Joxerramon Bengoetxearen hautagaitzaren aurkezpenean, eta bere bisita aprobetxatu genuen jakin berri genituen AEB-ko hauteskudeetako emaitzak aztertzeko.

Nolako irakurketa egiten duzu AEB-ko hauteskudeen inguruan?

Lehia estua izango zela esaten zen eta azkenean ez da estua izan. Konpromisario kopuruan erraz irabazi du Donald Trumpek eta, oraindik datuak konfirmatzeke badaude ere, botoetan berak irabazi du. Azken hori zalantzan zegoen. Hautatutako konpromisarioek erabakitzen dute presidentea zein izango den, eta gerta zitekeena zen konpromisario gehiago edukitzea, baina botoetan ez irabaztea. Adibidez, Kaliforniak 54 konpromisario ditu eta estatirik populatuena da (60 milioi biztanle); beraz, hor irabazten duenak boto andana lortzen ditu, baina berdin dio boto baten gatik edo milioi batengatik irabazi, lortzen dena 54

konpromisario direlako. Oraingoan ikusi duguna da Trumpek demaseko babesa jaso duela, baita irabazi ez duen estatuetan ere.

Nola ulertu daiteke Trumpen arrakasta?

Nire hurbilketa ekonomikoa izaten da beti, eta esan-gu nuke ekonomiak azaltzen duela arrakasta hori. Bill Clintonek 90. hamarkadan hauteskundeak irabazi zituenean, “ekonomia da” esan zuten, eta pentsatzen dut orain ere ekonomia dela. AEB-n ekonomia gain-beheran dago, dekadentzia luzean sartuta dago, eta datu makroekonomikoak itxurosoak izan arren, mikroekonomian jende gehienarentzat egoera txarra da. Badakigu gerra kulturalak ere asko mobilizatzen duela eta hori da Trumpen hasierako giharra, eskuin muturreko posizioekin; baina egoera ekonomikorako hautesleen artean Trumpen proiektu protekzionistak, Kamala Harrisen proiektu neoliberal ñabartuak (demokratek protekzionismorako zenbait zantzu erakutsi baitute) baino konfiantza gehiago sortzeak eman dio garaipena Trumpi.

Trumpen aurkako atentatua, Harrisek Joe Bidenen tokia hartzea... Kanpainak nola eragin du hauteskudeen emaitzetan?

Kanpaina hiru momentutan bereizten da. Hasieran



Eguaztenean, AEB-ko hauteskundeetako emaitzak jakin bezain laister, Asier Blas adituarekin elkartu ginen Eibarko EHU-n. EKHI BELAR

Trump eta Biden zeuden, eta hor aspalditik jakina zen zerbaitek ikusi zen: Biden burutik gaixo zegoela. Horrek balio digu hausnartzeko zenbat gezur esaten dituzten fake news-ak salatzen dituzten horiek. Esaten ziguten Bidenen inguruan esaten zen hori egia ez zela eta abar, eta ikusi da baietz, egia zela. Momentu horretan ikusten zen Trumpek irabaziko zuela, bitartean haren aurkako atentatuak bere posizioa gehiago indartu zuelarik, eta hor Alderdi Demokratik aldaketa bat egin zuen, Harris Bidenen tokian jarriz. Hasiera batean Harrisek babes handia jaso zuen inkestean arabera eta bazirudien irabazi zezakeela, baina behin hauteskunde kanpaina hasita, uda eta gero batez ere, hirugarren momentua hasi zen: Trumpek inkestetan etengabe aurrera egitearena. Ikusi zen aurrea hartzen ari zela giltzarri ziren estatu guztietan. Azkeneko astean sortu zen zalantza, bazirudielako Trumpi ez zihoakiola oso ondo. Hain zuzen ere, orain dela pare bat domeka New Yorken mitin nagusia eskaini zuen, eta bertan umoregile batek puertorricoarrei buruzko gustu txarreko txiste arrazistak bota zituen. Bazirudien ordutik gauzak okertu egingo zitzaizkiola, inkestetan ere jaso zen Ha-

“AEB-ko datu makroekonomikoak itxurosoak izan arren, mikroekonomian jende gehienarentzat egoera txarra da”

rrirek biziberritzeko aukerak zituela, baina ordurako 80 milioi boto emanak zeuden eta azken momentuko aldaketa horiek ez dute gehiegi eragin.

Beraz, ez da ezusteko handirik izan?

Uste dut hor badaudela emaitzak ulertzen lagundu ahal dizkiguten hiru elementu. Batetik, apustu etxeetan ikusten genuena. Apustu etxeak inkestak baino fidagarriagoak dira. Inkestak norbaitek ordaintzen ditu eta, normalean, horren atzean interes bat dago; apustu etxeetan, ostera, jendeak bere dirua jartzen du jokoan, eta aspalditik argi eta garbi esaten zuten Trumpek irabaziko zuela. Bigarrenik, Jeff Bezos, Amazon enpresaren jabea eta Trumpek oso kontrakoa,

Elkarrizketaren
BIDEOA

Washington Post egunkariaren akzionista nagusia da eta hauteskundeetan ez lerrotzeko eskatu zion egunkariari. Hau da, demokratentzat botorik ez eskatzeko. Gauza arraroa da, 2016an eta 2020 demokratentzat botoa eskatu zuelako. Are gehiago, 2016an Trumpekin demaseko talka izan zuen eta Hillary Clintonen oso ondoan egon zen. Oraingoan, Washington Post demokraten alde egon da, baina ez du esplizituki eurentzat botorik eskatu, New York Timesek egin duen bezala. Hori gertatu bada, seguruenik Bezosek Trumpek irabaziko zuela bazekielako da. Amazon babestu nahi zuen horrela. Hirugarrenik, orain dela bi-hiru egun, Michiganan, Harrisek bolante-kolpea eman zuen eta mitin horretan esan zuen Ekialde Hurbilean bakea sustatuko zuela eta Palestinaren autodeterminaziorako eskubidea egikartzeko neurriak hartuko zituela. Non egin zituen adierazpenok? Michiganan, populazio musulmana oso garrantzitsua den estatu batean, bereziki libanoar eta palestinar jatorrikoa. Mugimendu nahiko desesperatua zirudien, jakinik AEB-k Palestinako genozidioan duen inplikazioa zein den, eta kanpainen lobby sionisten menpe egon dela eta euren mesederako adierazpenak egin dituela egun batean bai eta bestean ere.

Estatu giltzarriak, konpromisarioak... aipatu dituzu lehen, AEB-ko hauteskunde sistemaren gakoak. Nolakoa da sistema hori?

Sistema presidentzialistetan ohikoena presidentea aukeratzea da, baina AEB-n jendeak ez du presidentea bozkatzeko. Estatu bakoitzak X konpromisario delegatu ditu, hauteskunde kolegio berezi batean presidentea nor izango den bozkatzeko dutenak. Horrek esan nahi du gutxi gorabehera barrutiek funtzionatzen duela. Barrutiak daude, barrutietan X diputatu daude eta barrutian irabazten duen alderdiak diputatu guztiak eramaten ditu, bere osotasunean (bi estatutan izan ezik). Adibidez, Kalifornian irabazten duenak, bertako diputatu edo konpromisario guztiak eramaten ditu, eta beste estatuetan berdin. Gero, hautatuak izan diren konpromisario horiek presidentea hautatzen dute.



“Apustu etxeak inkestak baino fidagarriagoak dira, eta aspalditik argi eta garbi esaten zuten Trumpek irabaziko zuela”

Estatu giltzarriak beti izaten dira berdinak ala hauteskunde araberak aldatzen dira?

Aldatuz doaz. Estatu batzuetan badakigu ia beti alderdi berak irabazten duela. Adibidez, Kalifornian demokratek eta Texasen errepublikarrek. Beste estatu batzuek, oster, euren boto-portaera aldatzen dute historian zehar. Giltzarri ziren batzuek, Florida bezala, giltzarri izateari laga diote, orain errepublikarrek irabazten dutelako beti. Hauteskunde hauetan zazpi estatu giltzarri aurrekusten ziren eta, orain arteko datuek diotenaren arabera, zazpitan Trumpek irabazi du.

ELKARRIZKETA OSOA: www.etakitto.eus

EZTEIAK



KILI-KLIK

GEHIGARRIA

48. zenbakia. 2024ko UDAZKENA

CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

UltraLift HIFU
Intentsitate handiko
ultrasoinu fokalizatua

LIFTING
KIRURGIKOAREN
BENETAKO alternatiba

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

ROSANA
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU #ASEALEKUA. 7 - BEHEA

Bitxitegia

J. Salaberria

Errebal, 22 943 20 20 79

RELOJERIA
SALABERRIA

kill_klik

kili klik

argazkilaritza fotografia

www.killklik.ous

646114443 • killmaksortzen@gmail.com
Indalecio Ojanguen 1 behea

YOKASTA Calbeton, 22-24
Tel. 603 344 258

manikura-aretoa

MANIKURA
5 €tik hasita

PEDIKURA
10 €tik hasita

zure azarkatak
zure espresibidea

ROCA

CALBETON, 16 -EBAR- TEL. 943 20 80 06

Ezkontza eta egun
berezietan ZUREKIN!!

Nolakoak izango dira 2025eko EZKONTZAK?

2025eko ezkontzetako joerek aukera ugari eskaintzen dituzte zure ezkontza paregabea eta berezia izan dadin. Koloreak, jantziak, tokiak, entretenimendua... Joera bakoitzak zure egun handia modu gogoangarrian pertsonalizatzeko aukera ematen dizu.



Lur-koloreak eta neutroak:

Lur-koloreak eta neutroak bueltan dira 2025ean. Imaginatu zure ezkontza apaintzen terrakota, beixa, oliba-berdea eta txokolate marroia bezalako tonuekin. Kolore hauek, oso dotoreak izateaz gain, giro goxo eta atsegina sortzen dute, eta zure gonbidatuek asko estimatuko dute. Zergatik aukeratu joera hori? Kolore horiek sofistikazio-ukitu bat ematen dute, xehetasun apaingarriak eta loreak modu sotil baina zirrargarrian nabarmentzen uzten dituen.

Aholkua: Tonu hauek material naturalekin konbina ditzakezu, hala nola lihoarekin eta zurarekin *look* harmoniatsu bat lortzeko. Adibidez, lihozko mahai-zapiz (beixa), mahai-erdiz (terrakota) eta kandelaz (tonu neutroa) apaindutako mahai batek ospakizun ikusgarri bihur dezake zure ezkontza.



KILI-KLIK

Andregai minimalisten soinekoak: Gutxiago gehiago da 2025ean

Gustatzen zaizkizu soineko xumeak baina ukitu berezikoak? Orduan, soineko minimalistak ezin hobeak izango dira zuretzat 2025ean. Lerro garbiak, eskote asimetrikoak eta xehetasun sotilak dituzten diseinuez ari gara, hala nola bizkar estali gabeak edo tamaina handiko mahukak. Zergatik aukeratu joera hori? Soineko minimalistak neskalagunaren dotorezia natura-

la nabarmentzen du, distrakziorik gabe. Ezin hobe da denboraz kanpoko *look* findu bat ukitu moderno batekin bilatzen dutenentzat.

Aholkua: Aukeratu diseinu sinpleko baina xehetasun bereizgarriko soineko bat, hala nola kapa arin bat edo begizta bat bizkarrean. Osatu konjuntua osagarri diskretuekin eta makillaje naturalarekin, sofistikazioari eusteko.

"TIRO PITXON JATETXEA"
Arraten
 - Eguneko menua
 - Asteburuko menua
 - Menu bereziak
 - Karta...
 - Ezkontzak
 - Ospakizunak...
TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

Izadi
LORA DENDA
Enkarguak etxera
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Khôl Estilistak Estaziño, 4 943 254776

Ezagutu edertasun kontzientearen kultura berri bat aktibo botaniko % 100 naturalekin

secretos del agua



KILI-KLIK

**Esperientzia murgiltzaileak:
guztiontzako dibertsio interaktiboa**

Bikoteak modu berritzaileak bilatzen ari dira beren gonbidatuak estazio interaktiboekin, zuzeneko ikuskizunekin eta jarduera pertsonalizatuekin entretenitzeko. Zergatik aukeratu joera hori? Murgiltze esperientziek, gonbidatuak entretenitzez gain, oroitzapen iraunkorrek ere sortzen dituzte. Modu bikaina da zure ezkontza paregabea eta harrigarria izan dadin.

Aholkua: Kontuan hartu koktel-estazio interaktibo bat, errealitate areagotua duen argazki-kabina bat edo zuzeneko emanaldi bat. Esperientzia horiek ukitu berezi eta originala gehituko diote zure ospakizunari.

**Ezkontza iraunkorrek:
eco-friendly ukitu bat zure ospakizunerako**

Ezkontza iraunkorrek goraka doaz eta 2025ean ez da salbuespena izango. Birziklatutako gonbidapenetatik hasi eta tokiko osagaiak dituzten menuetara, gero eta bikote gehiago ari dira ingurumena errespetatzen duten aukerak kontuan hartzen. Zergatik aukeratu joera hori? Planetari laguntzeaz gain, ezkontza jasangarria ere dotorea eta xarmangarria izan daitekeelako.

Aholkua: Tokiko eta sasoiko loreak aukeratu, dekorazioak eta soinekoak alokatu, eta bidezko merkataritzako produktu organikoak dituen menua aukeratu. Natura-ingurune batean ospatzeak ingurumen-inpaktua murrizten ere lagun dezake.

fasprint
inprimategia

EZKONTZA GONBIDAPENAK
gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin

SERIGRAFIA

☎ 943 20 16 13 📠 688 68 73 85 Ego-Gain, 11 ac
fasprintei@yahoo.es www.fasprinteibar.com

San Andres
Gozategia

Bidebarrieta, 28 943 20 75 73

Ezkontzetarako tartak eta
opariak prestatzen ditugu



BELAUSTEGI

— BASERRIA —

ZURE EZKONTZA
ZURE NEURRIRA!





DANEL DE PRADO REQUENA

Azkenik, natura irabazle

Astebete igaro da denboraleak Valentzia eta inguruko lurraldeak gogor astindu zituenetik, uholdeek haien bidean zuten guztia bortizki eramanez. Ondorengo egunetan, anabasa eta babesgabezia izan ziren nagusi kaltetutako herrietan, eta egunak pasa ahala, geroz eta okerragoak izaten ari dira honi buruz heltzen zaizkigun albisteak. Zalantzarik gabe, okerreña 200 lagun baino gehiagok bizia galdu izana da, makina bat pertsonak desagertuta jarraitzen duten bitartean.

Hondamendi honen kausa ulertzeko zenbait arrazoi eman dituzte. Bestek beste, ezohiko euritea izan zela nabarmendu da, 500 l/m²-tik gorako prezipitazioekin. Horrez gain, Meteorologiako Estatu Agentziak (AEMET) alerta gorria ezarri arren, Generalitateak salbuespenezko neurriak garaiz hartu ez izana aipatu da. Klima aldaketak fenomeno hauen maiztasunean eta intentsitatean duen eragina ere aipatu da. Azkenik, uholde-arriskua duten guneetan eraiki izanari eta, oro har, hiri-antolamenduari azpimarra jarri diote.

Azken puntu honi erreparatu nahi diot nik. Izan ere, zenbaitek alerta gorriko egoeran Generalitatearen kudeaketa desegokiari eman diote garrantzirik handiena eta, egia esan, ez dago hauxe ukatzerik. Baina, zoritxarrez, kudeaketa hobe batek ez lioke uholde-arriskuaren arazoari errotik aurre egingen, egoerari adabaki bat besterik ez lioke jarriko, ondorioak leuntze aldera. Haatik, hirigintzari buruzko adierazpenak urriak izan dira, gai honek duen pisua ia erabat galduz.

Leku askotako herrigune historikoak behatuz gero, salbuespenak salbuespen, ibai eta erreken ibilgutik aldentutako kokapena izan ohi dutela ikus daiteke. Ur-gordien indarrak jabetuta, herriek arriskuak ekiditeko neurriak hartu zituzten garai batean, erreka inguruak nekazaritzarako eta burdingintzarako erabiliz. Azken hamarkadetan, baina, hainbat arrazoi edo premia medio, ibai inguruko lurretan eraikitzeak joerak nabarmen egin du gora, herriguneak zabaltzeko asmoz, uholdeen ezohiko maiztasuna aitzakia hartuta ekintza hau justifikatzeko. Ibaien ekosistemari eta bere ezaugarriari bizkarra emateak dituen ondorio latzak, ordea, agerikoak dira. “Azkenik, natura irabazle”.

Valentzian gertatutakoak hurrengo urteetan gauzatu nahi dugun hirigintza-ereduaren inguruan hausnartzeko balio beharko liguke. Bizigune erresilienteak beharrezkoak ditugu eta, horretarako, orain arteko joera aldatzea ezinbestekoa da. Izan ere, funtsean merezi al du hondamendi bat jasateko arriskua hartzeak?

“Ibaien ekosistemari eta bere ezaugarriari bizkarra emateak dituen ondorio latzak, ordea, agerikoak dira”

Indarkeria matxistaren aurrean ardura-hartze kolektiboa

Nola egin aurre emakumeen aurkako indarkeria ikusezinari, kontzientzia kolektibotik. Hori izango da Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunerako prestatu duten programazioaren ardatza aurten. Egitaraua hilabete osoan zehar garatuko da eta, urtero bezala, Udaleko hainbat sail eta Eibarko Emakumearen Mahaiko partaideak elkarrekin aritu dira lanean, egitaraua osatzeko.



Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunerako prestatzen ari diren egitaraua Jon Iraola alkateak eta Sonia Archeli Berdintasun zinegotziak aurkeztu zuten orain dela egun batzuk, Andretxean egindako prentsaurrekoan. Esandakoari jarraituta, programazio zabala eta askotarikoa prestatzeko lanean aritu dira Andretxean, eta egitarauan jasota dauden jarduerak hilabete osoan zehar izango dira.

Sonia Archeli Berdintasun zinegotziaren berbetan, “programa hau emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak desagerrarazteko dugun konpromiso sendoaren isla da. Ezin dugu ezikusiarrena egin hainbeste pertsonari eragiten dion errealitate honen aurrean. Artearen, hezkuntzaren eta ekintza kolektiboaren bitartez, jendartean kontzientzia kritikoa sortu nahi dugu, erabiltzen diren indarkeria mota guztiak ikusgai jarri eta jendarte berdinzaleago baten alde eginez. Herritaren parte-hartzea funtsezkoa da denok behar dugun aldaketa bultzatzeko”.

Autodefentsa feministan aditua den Maitena Monroy-k (argazkian) hasiko du egitaraua, datorren astean, bere liburua aurkezteko eskainiko duen saioarekin.





“Autodefensa feminista: más allá de aprender a decir no” liburua aurkeztuko du gai horretan aitzindaria den Maitena Monroyk, eguenean Andretxean



Itxi aurretik, Andretxean ikusgai dagoen erakusketaren bisita gidatua eskainiko dute egileek, azaroaren 28an.

Eguenean (azaroak 14) 18:00etan hasiko da *Autodefensa feminista: más allá de aprender a decir no* liburua- ren aurkezpena, Andretxean, eta ekitaldian ahalduntze eta autodefensa-estrategien gainean hausnartzeko aukera egongo dela adierazi dute antolatzaileek. Egilearen berbetan, “liburu hau emakumeen ahalduntze feministarako ia lau hamarkadako lanaren emaitza da. Emakumeei jokabide matxistak identifikatzen eta emakumeen eskubideak urratzen edo diskriminatzen diren edozein egoeraren aurrean erreakzionatzen lagunduko dien liburua da hau. Autodefensa feminista ahalduntze indibidual eta kolektiborako estrategia bat da, erakunde feministetatik sortua, emakumeei indarkeria matxista identifikatzen eta horretatik defendatzen laguntzeko, hiru esparruetan: kognitiboa, fisikoa eta emozionala”.

“Soilik bai da bai” legearen inguruko zalantzak argitzeko saioa

Azaroaren 21ean, berriz, Sara Arruti jurista eta ikerlari feministak eta Mainer Galardi kazetari eta ikertzaile feministak Sexu Askatasunaren Berme Integralaren Legeari buruz (“Soilik bai da bai” izenez ere ezaguna) arituko dira berbetan, “zarata mediatikoak eragindako itzalak argitzeko”. Izan ere, azken urte honetan “Soilik bai da bai” legeari buruzko eztabaida gori-gori dago. Hizlariiek diotenez, “indarrean egonda ere, lege horren inguruko polemika ez da amaitu. Urte eta erdi igaro den arren, albiste faltsuak (fake news), ezjakintasuna eta informazio desitxuratua nagusi dira oraindik ere. Zalantzak argitzeko, eta legearen zein hedabideen jardueraren nondik norakoak ezagutzeko solasaldia izango da gurea”. Andretxean izango da saioa, 18:00etan.

Hurrengo egunerako, berriz, antzezki zuna antolatu dute: Ttipia konpainiak *Una bofetada no es nada* (Bellarrondoko bat ez da ezer) izenburuko lana taularatuko du, 18:30ean Andretxean. Belén Cruz Pérez eta Patxi Pérez Giraldez antzezleak protagonista dituen lan horretan gaur egungo gure gizartean tokirik ez duten genero-ereduak eta beste gai batzuk ikutuko dituzte, umoretik beti ere: “Komedia bat egin nahi genuen eta, gai horri heltzean, Fary agertu zen, emakume kapoiari eta gizon bigunari buruzko adierazpenak egiten. Horrek barrea eragin zigun, baina, era berean, zaplazteko batek bezala astindu gintuen”.



Iazko ekintza kolektiboan parte hartu zuten emakumeek puntuz egindako zati ezberdinak elkarrekin josi zituzten amaieran. Bertan indarkeria matxistaren kontrako mezuak idatzi zituzten, artilea erabilia.

Ekintza kolektiboa eta elkarretaratzea

Eta azaroaren 25erako bi jarduera nagusi prestatu dituzte. Goizeko 11:30etik 13:00era *Matazak Ehuntzen Indarkeria Matxistaren Aurka* ekintza kolektiboa egingo da Untzagan. Azaldu dutenez, “Altoa alargunen elkarteko kideek, Emakumearen Mahaiko gainerako kideekin lankidetzan, bultzaturiko ekintza da hau. Espazio publiko batean, eta ekintza kolektibo baten bidez, indarkeria sexista salatzea proposatzen duen proiektua da”. Asmo horrekin, puntuz egindako pieza ezberdinak elkarrekin josi eta Untzagan dauden zuhaitzetan ipiniko dituzte. Antolatzaileen berbetan, “indarkeria-oinarri bera duten emakumeek jasaten dituzten desberdintasunak eta diskriminazio-egoerak ikustaraztea da helburu nagusia”. Herritar guztiei irekitako jarduera izango da. Eta arratsaldeko 18:30ean Indarkeria Matxisten Kontrako elkarretaratzea egingo da Untzagan, *Indarkeria matxistaren aurrean, ardura-hartze kolektiboa* goiburuari jarraituta.

Bestalde, urriaz geroztik Andretxean ikusgai dagoen *Lumineszen-teak*, Irantzu Pastor eta Igone Mariezkurrenaren erakusketak hil honen amaieran itxiko ditu ateak; baina aurretik, azaroaren 28an, bi egileek bisita gidatua egingo dutela gogorarazi nahi diete herritarrei. Bisita gidatua egiteko interesa duenak Andretxean galdetu dezake. Eta Juan San Martin Udal Liburutegiarekin batera, azaroaren 25erako Irakurketa Gida bat osatu dute. Gidarekin batera, informazio-mahaia jarriko da liburutegian bertan.

Azaroaren 25ean Untzagan egingo den “Matazak Ehuntzen Indarkeria Matxistaren Aurka” jarduera kolektiboa



Ipuru klubeko oinarri jubenil mailako taldeak brontzezko domina lortu zuen.

Ipuruako gimnastek hirugarren eta laugarren postuak lortu zituzten Barakaldoko Euskalgym Txapelketan

Aurreko asteburuan Barakaldon jokaturakozko handiko Euskalgym Txapelketan, Ipuruako oinarri jubenil taldeak oraingoan postu hobeak eskuratu zuen senior taldeak baino. Jubenil taldeak meritu handiko brontzea irabazi zuen, batez ere kontuan izanda taldea denboraldia hasita osatu zela, hiru kide berrirekin: euren arteko koordinazioa gero eta sendoagoa da bi pilota eta hiru uztairekin egiten duten koreografia osatzerako orduan. Zilarretik 0'05 puntura geratu ziren. Senior taldeak, bere aldetik, laugarren postua eskuratu zuen, 25,350 punturekin, eta lehiaketan ondo jardun bazuen, Galan egin-

dako lanak 8.500 ikusleen txalo zaparrada jaso zuen. Barakaldon izan zen hirugarren taldeak, oinarri infantil mailakoak, Zaragozan hilaren 21etik 24ra jokatu den Espainiako Txapelketan izango dute hurrengo erronka.

Asteburu hau ere bete-betea izango dute Ipuruako gimnastek. Horrela, zapatuan Azpeitian Gipuzkoako oinarriko eta taldekako txapelketan izango dira aurrez aipaturako hiru taldeak; eta domekan Euskadiko taldekako txapelketa eta oinarriko bakarkako Koparako sailkapena izango dira, jokoan Gasteizen, senior taldearen eta Maddi Teranen parte-hartzearekin.

Hilaren 16an jokatu da Asier Cuevas herri-lasterketa

Asier Cuevas herri-lasterketaren XI. edizioa azaroaren hirugarren zapatuan, hilaren 16an, jokatu da aurtun. Zazpi kilometro eta erdiko ibilbidea duen proba horretarako izena eman daiteke dagoeneko www.sailkapenak.com web orrian edo, bestela, proba antolatzen duen Eibarko Klub Deportiboan bertan. Lasterketa arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta egun horretako ekitaldi guztiek, sari-banaketa tarteko, 19:30era arte iraungo dute. Herri mailako lasterketa izanda, adin guztietako eibartar asko biltzen ditu atleta handiaren izenarekin bataiatutako probak.

Txapelketako finalerdia hartuko duen jaialdi bikaina Astelenan domekan

Domekarako jaialdi bikaina presatu du gure herriko Aspe pilota enpresak, bertako partidu nagusia kaiolaren barruko Jokin Altuna eta Unai Lasoren artekoa izango dela aprobeztatuz. Jaialdia binakako norgehiagoka ezinhobearekin hasiko da, bertan izango baitira enpresako pilotari onenetakoak eta: Ezkurdia-Rezusta eta Zabala-Zabaleta bikoteen arteko lehia ezin aproposagoa izan daiteke hurrengo partidu nagusirako motorrak bertzen joaten hasteko. Ondoren, lau eta erdiaren barruko txapelketaren finalerako txartelaren bila jardungo dute Aspe eta Baiko enpresetako pilotarien artean frontoira zaletu gehien eramaten duten Altunak eta Lasok. Eta euren arteko nor-



Laso eta Altunak eguazten goizean aukeratu zituzten domekarako pilotak.

gehiagokaren ondoren, Exposito-Gaskue eta Dela Fuente-Gabirondo bikoteen arteko partiduarekin amaituko da jaialdia.

Katedralak hartuko duen asteburua topera dator herriko pilotarientzat ere

Astelena Katedralak atsedean gu-txi hartuko du gaurtik domekara arte. Gaur, arratsaldeko 18:15ean hasiko den jaialdian, Gipuzkoako Txapelketako finalak hartuko ditu Eibarko frontoiak, jubeniletan zein helduen mailan. Aurretik, dena dela, Errendimendu mailako infantilak ikusteko aukera izango da, Gipuzkoako eskuz banakakoan bete-be-tean ari diren federatu gazteen arloan. Ondoren, jubenilen mailako txapela izango da jokoan, Azkoitiko Arregi-Bastida eta Oiartzungo Etxabe-Zelaiaran bikoteen artean. Eta, jaialdia amaitzeko, horraino ibilbide ezinhobea egin duen Ibarra-Agirresarobe Eibarko bikotea herriko zaletuen aurrean txapela janzteko asmoz kantxaratuko da Lasarteko Artetxe-Urdanpilleta bikoteari irabazteko asmoz; eibartarrak, gainera, dagoeneko 2. Mailara igo dira automatikoki.

Zapatuan bi jaialdiz gozatzeko aukera izango dugu Katedralen. 09:00etan hasiko den goizekoan Gipuzkoako paleta goma binaka-



Ibarra eta Agirresarobe helduen mailako txapelaren bila izango dira Astelengan.

ko txapelketako ligaxkako azken partidua ikusi ahal izango dugu. Bertan gure herriko Guinea-Ferreiro bikoteak finalerdietarako txartelaren bila jardungo du, bide batez 2. Mailara igotzeko aukera emango liokeena aprobetxatuta. Arratsaldean, bestalde, 16:00etatik aurrera Eskolarteko txapelketako jardunaldia izango da Astelengan, alebin mailako Debarroko pilota eskoletako neska-mutikoen parte-hartzearekin.

Domekako 59. Behobia-Donostia maratoi erdiak 200 metro gehiago izango ditu

Donostiako Fortuna Klub Deportiboak antolatutako proba goizeko 10:00etan abiatuko da Behobiatik. Parte-hartzaileak zazpi mailatan daude sailkatuta eta eliteko emakumeek bost minutu lehenago irtengo dute. Guztira 27.722 atleta onartu dituzte antolatzaileek eta, gehienez jota, bi ordu eta 35 minututan amaituko beharko dute lasterketa, 20 kilometroak osatu eta Bulevarrera heltzeko. Oraingoan, gaine-

ra, lasterketa 196 metro luzeagoa izango da, kalean egiten diharduten lanen eraginez. Parte-hartzaileen %31'5 izango dira emakumezkoak, guztira 8.716. Eta parte-hartzaileen adin-tarteari dagokionez, "orain arteko adin tarte nagusia 41-45 edo 46-50 bazen, aurten, lehen aldiz, ez da hala gertatuko, 26 eta 30 urte artekoa izango baita tarte nagusia", hau da, korrikalari gazteagoak izango ditugu domekan.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila
EIBAR - Tenerife Granadilla (etzi, 12:00)

Gizonzkoen 2. Maila
Deportivo - EIBAR (etzidamu, 20:30)

Gizonzkoen 2. Maila RFEF
EIBAR B - Ejea (etzi, 16:00)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF
Aviles - EIBAR B (bihar, 19:00)

Gizonzkoen 3. Maila RFEF
Durango - EIBAR C (bihar, 18:00)

Emakumezkoen Euskal Liga
EIBAR C - Elorrio (bihar, 15:30)

Erregionaleko Gorengo Maila
Segura Aizkorri - URKI (bihar, 16:00)
EIBARTARRAK - Anaitasuna (bihar, 18:00)

FUTBOL-ZALETUA

- Baserri - Malape Taberna (bihar, 09:00)
- Adahi Etxegi - Garaje Garcia (bihar, 10:30)
- Xania - Kalaka Buenos Aires (etzi, 09:00)
- Limpieza Rueda - Bar Marem (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gizonzkoen Gipuzkoako 3. Maila
Izarraitz - EIBARTARRAK (gaur, 22:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila
MEK EIBAR - Aiala Zarautz (etzi, 12:00)

Gizonzkoen 1. Nazional Maila
Loyola - MEK EIBAR (bihar, 20:00)

Emakumezkoen Euskadiko Liga
Urdaneta - MEK EIBAR B (bihar, 16:00)

Gizonzkoen Lurraldeko Liga
Urnieta - MEK EIBAR B (etzi, 12:00)

FERRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko B Maila
Olimpico Pozuelo - EIBAR (bihar, 12:00)

Gizonzkoen Euskadiko Liga
EIBAR - Urgozo Zornotza (etzi, 12:00)

SASKIBALOIA

Gizonzkoen Gipuzkoako 2. Maila
Hernani - ARTES. JUANTXO (bihar, 16:00)

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila
Añorga Saski - EIBAR (bihar, 16:00)

Gizonzkoen Gipuzkoako 3. Maila
Erroibide AIB - EIBAR B (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonzkoen 2. Nazional Maila
Alcorcon - URBAT (bihar, 12:00)

Gizonzkoen Euskal Herriko Liga
Leioa WP - URBAT B (bihar, 13:25)

PILOTA

Jaialdia Astelengan (etzi, 17:00)
Ezkurdia-Rezusta vs Zabala-Zabaleta
Altuna III vs Laso
Exposito-Gaskue vs De la Fuente-Gabirondo

Urki Gorengo Mailako lider indartsua, Eibartarrak erdialdean

Gipuzkoako Gorengo Mailako bigarren multzoan dauden gure herriko bi ordezkariak maila bikaina dihardute ematen denboraldi hasiera honetan. Urki lidergoan dugu eta asteburu honetan Soraluzeri 6-0 irabazi zion Unben (Anar-ek bi gol sartu zituen eta Markel, Amutxastegi, Gabilondo eta Kepak bana). Urki liderrak bi puntu ateratzen dizkio Debako Amaiak Bat taldeari eta, horrela, jokatutako zazpi partidutik sei irabazi ditu eta bakarra galdu. Eibartarrak igo berria, bestalde, sailkapeneko erdialdean dago, hiru partidu irabazi eta lau galdu ondoren.

1. Erregional Mailako seigarren multzoan jokatzen duen Urkiren bi-



Urkiko talde nagusiak 6-0 irabazi zion Soraluzeri azken jardunaldian.

garren taldea, bestalde, erdialdean dago sailkapenean, sei partidutik bi irabazi, hiru berdindu eta bakarra

galdua. Azken jardunaldian eibartarrek bana berdindu zuten Aloña Mendi B-rekin Unben.



Urbat-Urkotronik waterpolo klubak bere talde guztiak aurkeztu zituen

Eguaztenean aurkeztu zituen Urbat waterpolo klubak, babesle nagusi duen Urkotronik enpresaren instalazioetan, denboraldi berrirako osatu dituen talde guztiak. Klubak indartsu eusten dio azken urteotan osatutako egiturari eta, talde nagusiak asko berri eta gazte badira ere, talde nagusienak 2. Maila Nazionalean egingo du bere

bigarren denboraldia, aurrekoan mailari eustea lortu eta gero. Gizonezkoen bigarren taldeak, bestalde, Euskal Herriko Ligan jokatzen du eta, azken asteburuko jardunaldian esaterako, 16-11 irabazi zion Urgarari. Asteburu honetan lau partidu jokatuko dituzte Urbatekoek, guztiak kanpoan kasualitatez: bi senior mailakoak, eta beste bi kadeteenak.

Mek Eskubaloiko talde nagusiak garaipen bidetik

1. Nazional Mailan jokatzen duen gizonezkoen taldeak, bolada onari eutsiz, laugarren garaipena jarraian lortu zuen Hondarribiari 31-30 irabazita. Eta Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzen duen emakumezkoen taldea ere bikain aritu zen azken jardunaldian, denboraldiko lehen garaipena lortuz, Santanderren 18-23ko emaitzarekin nagusituta.

Bide horretatik jarraitzeko asmoz, asteburu honetan gizonezkoen taldeak kanpoan jokatuko du, bihar 20:00etan Loyolari bisita egingez, eta oraingoan emakumezkoen taldea izango da etxean jokatuko duena, domeka eguerdian (12:00etan) Aiala Zarautz taldea hartuz Ipurua kiroldegian.



BAZKIDE zertarako?

Eibarko dendetan euskararen erabilera bultzatzeko



Euskeraz primeran!

Herriko komertzioetan, izan denda izan taberna, euskararen erabilera bultzatzea helburu duen egitasmoa da. Bezero eta tabernari edo saltzaileen arteko euskarazko harremana errazteko hainbat ekimen antolatzen ditu ...eta kitto! Euskara Elkartek urtean zehar: horma-irudiak, hiztegiak, mantelak, merkealdien azokan postua jartzen du... Eta behar izanez gero, itzulpen-zerbitzua ere eskaintzen zaie doan.

zarelakogara

Egin zaitetz bazkide!




Pintura-lehiaketako sari berezia Julio Gomezentzat

Urriko azken domekan egin zen Aire Zabaleko XLVII. pintura-lehiaketan, Julio Gomez Menak eraman zuen Eibarko Hiria Sari Berezia; bigarren saria Jose Manuel Aznar Diazek jaso zuen; hirugarrena, Ricardo Azkargorta Celayak; eta laugarrena, Fernando Ureta Castellok. Herriko Saria, berriz, Ane Ferrer Moralek irabazi zuen; lehen Gazte Saria, Amaia Basterrikak; bigarren Gazte Saria, Maider Iglesiasek; Haurren lehen Saria, Eira Rojok; eta Haurren bigarren Saria, Sia Martinez-Toledanok. 55 partaide izan ditu Artisten Elkarteak eta Udalak antolatzen duten lehiaketak.

Bertha Gaztelumendiren “Volar” Pagatxaren bideo-forumean

Azaroaren 15ean (barixakua) izango da Emakumeen Istorioak bideo-forumaren hurrengo saioa, 18:00etatik 19:30era Andretxean (Isasi, 11). Pagatxa elkartearen eskutik egingo den saioan *Volar* izenburuko dokumentala emango dute. Bertha Gaztelumendik zuzendutako lan horrek genero-indarkeriatik bizirik atera diren bederatzi emakumeren lekukotasunak biltzen ditu, eta lan horretan parte hartu duten bi emakumeren testigantzekin osatuko dute saioa. Proiekzioa amaitu eta jarraian, Patricia Perex Cotok dinamizatutako solasaldia egingo da.



Goi mailako sei bertsolari San Andres bertso jaialdian

Azaroaren 22an (barixakua) egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak urtero antolatzen duen San Andres Bertso Jaialdia, Coliseo antzokian, 20:00etan hasita. Jaialdiaren aurretik, baina, San Andres Bertso-Paper Lehiaketako irabazleei sariak banatuko zaizkie, eta saritutako bertsoak jendaurrean kantatzeko tartea izango da. Sari-banaketa amaitu eta, jarraian, bertsolarien txanda izango da. Aurtengo jaialdian Amets Arzallus, Jone Uria, Alaia Martin, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu eta Maialen Lujanbio bertsolariek hartuko dute parte, eta gai-jartzailea Jon Mikel Mujika izango da. Sarrerak egunean bertan ipiniko dituzte salgai, Coliseoko leihatilan, bertso-saioa hasi aurretik, eta prezioa 8 eurokoa izango da.



Bihar banatuko dira Asier Errasti Jaialdiko sariak

Bihar amaituko da Asier Errasti Film Laburren Jaialdia, baina, eguneroko martxan, gaur ere lehiaketara aurkeztutako lanak emango dituzte Coliseon, 20:00etatik aurrera. Sarrera doakoa da. 25. edizioa bete duen lehiaketako sariak, berriz, bihar banatuko dituzte, 19:30ean antzokian hasiko den ekitaldian.



Liburu Azoka hartuko du Untzagak azaroaren 17ra arte

Gaur goizean zabaldu dute Eibarko Liburu Azoka, Untzaga plazan. Euskadiko Liburu Ganbararekin batera Udalak antolatutako ekitaldian, betiko moduan, disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta egingo dute, argitaletxe ezberdinek ipini dituzten postuetan. Euskarazko zein gaztelerazko azken argitalpenekin batera, aukerako liburuak erosi ahalko dira. Gainera, normalean baino merkeago erosteko aukera eskaintzen du azokak, liburu guztietan %10eko deskontua dago eta. Azaroaren 17ra arte egunero zabalduko dute, goiz eta arratsalde: astelehenetik barixakura bitartean, 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era; eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.



Luzaketa-tailerra eta hitzaldia Ipuruako merkatuan

Luzaketa-tailerra antolatu dute biharko Ipuruako merkatu plazan. Bi txandatan emango dute (09:30etik 10:15era eta 10:30etik 11:15era). Doan izango da, eta izena emateko 672 275 578 telefono zenbakira deitu edo nuriarodriguezibarra@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Eta domekan *Alzheimerrarekin elkarbizi* hitzaldia hasiko da 12:00etan (sarrera libre).



Andres Millanen erakusketa gaurtik aurrera Topalekuan

Gaur arratsaldean zabalduko dute Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan "Eibar donde el Trabajador es Arte; en Busca de una Nueva Mitología Vasca" izenburuko erakusketa. Andres Millanek egindako egurrezko eskulturak ikusi ahalko dira bertan, hilaren 17ra arte. Arratsalde, 19:00etatik 21:00etara joan daiteke ikustera, astelehenetik barixakura; eta asteburuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute.



Miriam Luki gonbidatu dute euskarazko irakurle taldera

Martitzenean izango da "Idazlearekin Harixa Emoten" euskarazko irakurketa klubaren hurrengo saioa, 19:00etan Portalean. Saio horretara gonbidatu duten idazlea Miriam Luki da, eta *Argialdiak* liburuari buruz arituko da. Beti bezala, irakurleek liburuari buruzko galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute, eta Ainhoa Aldazabalek zuzenduko du saioa.



Naturaren koloreak. PEDROARRIOLA

Nerea Alzuaran Elorriaga

2024/10/31

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

**EZ ZAITUGU SEKULA
INOIZ AHAZTUKO**

- EIBARKO ZURE LAGUNAK -



Roberto Magunazelaia De la Cruz

2024/10/31

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
famiako guztiol.

**"Beti izango
zaitugu gogoan"**

- ETXEKOAK -



Ana Dominguez Areta

2. URTEURRENA
2022/11/05

"Beti egongo
zara gurekin.
Maite zaitugu"

- ETXEKOAK -



Luis Egaña Alberdi

1. URTEURRENA
2023/11/04

"Ez dugu inoiz
ahaztuko zure
bizipoza eta
alaitasuna. Gure
bihotzetan beti"

MAITE ZAITUGU

- ETXEKOAK -



Maria Luisa Garate Altuna

10. URTEURRENA
2014/11/06

"Ez ditugu inoiz
ahaztuko izan
dituzun ilusioa
eta bizipoza"

- ETXEKOAK -



Josetxo Arana Areitio

8. URTEURRENA
2016/11/08

"Ahazten ez dena
inoiz ez da hilko"

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

1	2		4	6	7		
6			7	8	9		
		9				5	
8	1	6					
				7	8	5	
	6				3		
		3	1	2			9
		8	9	3	6	7	

A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**


soluzioa

A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I
A	B	C	D	E	F	G	H	I

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

								5
6				1		4		
	2		5	4	7			
		6					4	9
1	4		9		8		3	6
9	7					8		
			1	6	5			7
		3		2				4
7								

LABIRINTOIA



Azaroak 8/14

BARIXAKUA 8

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta 17:30/20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Doan. Torrekuako parkea.

FILM LABURREN JAIALDIA

20:00 Asier Errasti Eibarko 25. Film Laburren Jaialdiko proiektzioak. Doan. Coliseo.

ZAPATUA 9

TAILERRA

09:30/10:15 eta 10:30/11:15 Luzaketa tailerra, dohainik. Ipuruako merkatu plaza.

ATE-IREKIEKIN JARDUNALDIAK

10:00 FE. VI. Ate-irekien Jardunaldiak: "Lagunartean zahartzea". Harrera.

10:30 Aurkezpena eta ongietorria.

10:45 Mahai instituzionala.

11:00 Mahai-ingurua.

11:30 Atsedendaldia.

12:00 "Emakume izanda zahartzea. Elkarte-sarearen garrantzia" hitzaldia, Monica Ramos Tororen eskutik.

12:45 Mahai-ingurua eta bateratze-lana.

13:20 "Clownclusiones", Virginia Imaz Quijerarekin.

13:20 Agurra. Coliseo.

LIBURU AZOKA

12:00/14:00 eta 17:30/20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

FESTA DO MAGOSTO

18:30/22:00 Gaztaina erreka, txorizo pintxoak, enpanada, Ribeiro ardoa eta Estrella Galicia garagardoen salmenta. Galiziako "As Burgas" kultur etxeko Os Galaicos gaitaldea girotuta. Urkizu.

FILM LABURREN JAIALDIA

19:30 Asier Errasti Eibarko 25. Film Laburren jaialdiko sariak banatzeko ekitaldia. Doan. Coliseo.



DOMEKA 10

HITZALDIA

12:00 "Alzheimerarekin elkarbizi", AFAGI Alzheimer Gipuzkoa-rekin batera antolatuta. Doan. Ipuruako merkatu plaza.

LIBURU AZOKA

12:00/14:00 eta 17:30/20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 11

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta 17:30/20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

GAZTAINERRE

19:00 "Ondra-janak tabernaz taberna". Kalejira eta afari merienda trikitilariekin. AEK euskaltegiak antolatuta.

KANTU SAIO IREKIA

19:00 Euskal kanta tradizionalak. Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 12

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta 17:30/20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

AUZO-BILERA

19:00 Udal arduradunak, eki-erdiguneko bizilagunekin. Coliseo.

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

19:00 Euskarazko irakurketa klubeko saioa. Miriam Lukiren "Argialdiak" liburuari buruz. Portalea.

EGUAZTENA 13

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta 17:30/20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

AUZO-BILERA

19:00 Udal arduradunak, Legarreko bizilagunekin. Udaletxea.

EGUENA 14

HITZALDIA

10:00/12:00 "Musika inpresionismoa, Debussy figura nagusitzat hartuta". Hitzlaria: Marina Lertxundi. Ikasten elkartearen eskutik. Sarrera doan. Armeria Eskola (areto nagusia).

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta 17:30/20:30

Disko eta liburu berrien aurkezpena eta salmenta. Untzaga.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

LIBURU AURKEZPENA

18:00 "Autodefensa Feminista: Más allá de aprender a decir no". Hitzlaria: Maitena Monroy Romero. Gaztelera. Andretxea.

GALA

20:00 Merkataritzza Gala, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Coliseo.

FRAKUSKETAK

Azaroaren 17ra arte:

- "Eibar donde el Trabajador es Arte; en Busca de una Nueva Mitología Vasca", **ANDRES SAN MILLAN**.

(Topaleku)
- **INDALECIO OJANGUREN 37. argazki lehiaketako lanak**. (Portalea)

- "MNÉMOSINE", **Carmen Palomeroren instalazioa**. (Portalea)

Azaroaren 29ra arte:

- "LUMINESZENTEA". (Andretxea)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **9an:** 19:45 (2 Aretoa)
- **10ean:** 20:00
- **11n:** 19:30

"Rita"
DRAMA



2024/Espainia/94'
Zuzendaria: Paz Vega
Aktoreak: Sofia Allepuz,
Alejandro Escamilla, Paz Vega
Hautzaroa/80. hamarkada

2 ARETOA

- **9an:** 22:30
- **10ean:** 17:00, 20:00
- **11n:** 19:30

"La cocina"
DRAMA



2024/Mexiko/139'
Zuzendaria: Alonso Ruizpalacios
Protagonista: Rooney Mara,
Raul Briones, Anna Diaz
Sukaldea/Inmigrazioa

ANTZOKIA

- **9an:** 17:00, 19:45, 22:30 (1)
- **10ean:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **11n:** 19:30

"Marco"
DRAMA




2024/Espainia/101'
Zuzendaria: Aitor Arregi
Aktoreak: Eduard Fernandez,
Nathalie Poza, Daniela Brown
Biografikoa/Holokaustoa

ANTZOKIA

- **9an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **10ean:** 17:00

"Shin Chan: el superhéroe"
ANIMAZIOA



2023/Japonia/93'
Zuzendaria: Hitoshi One
**Abenturak/Manga/
Superheroiak**



**JOSE MARIA
LARREATEGI
"TXOPEN"**

6. URTEURRENA
2018/11/03

**JERONIMA
MANDIOLA
BILBAO**

7. URTEURRENA
2017/07/13

"Zuek biok eskainitako maitasunarekin gelditzen gara. Beti gogoan izango zaituztegu"

- ETXEOAK -

**Roberto
Magunazelaia De la Cruz**

2024/10/31

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

- ZURE KUADRILLA -

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ENEKO!!!** Hillaren 2xan 9 urte egin zenduaz eta. Besarkada haundi bat famelixax guztiaren partez.



Zorionak, **IZAR!** Hillaren 4an 6 urte bete zenduaz eta! Illargiraiño eta buelta maitte zaittugu! Etxekun partez!



Zorionak, **MARKEL!** Eguaztenian 4 urte bete zenduaz eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, Julen eta Danelen partez.



Zorionak, **LOREA!** Domekan 7 urte beteko dozuz! Ondo ospatu, merezi dozu eta! Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **MARKEL,** hillaren 5ian 5 urte bete zenduaz eta. Patxuak famelixaren eta, batez be, Luken eta Aniaren partez.



Zorionak, **JON,** martitzenian 3 urte bete zenduaz eta. Besarkada bat famelixaren eta, batez be, Mainerren partez.



Zorionak, **MAREN-**txo! Hillaren 5ian urtetxua bete zenduan eta. Familixako danon partez. Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **LIHER.** Bixar 8 urte beteko dozuz eta! Maitte zaittugu! Haundixena zara!!



Zorionak, **MIREN,** gaur 12 urte beteko dozuz eta. Segi horren alai! Musu potolo bat famelixax guztiaren partez.



Zorionak, **MAREN!!** Hillaren 5ian urtetxua beteta. Musu haundi bat amatxo, aitatxo eta etxeko guztien partetik.



Zorionak, **MARKEL** eta **JUNE,** 8 eta 3 urte bete dozuez eta. Asko maitte zaittuen aitxitxamama eta famelixax guztiaren partez.

leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Funeraria

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Osaola, 27
Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeleón, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokal zentrikoa salgai. 25 metro karratu. 688686786.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Urkizun. 35 metro karratu. Komuna, ura eta argiarekin. 685758326.
- Garajea alokagai San Juan kalean. 639643600.
- Lokala alokagai Urkizun. Gazteentzako aproposa. Baimenarekin. 600776887.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Erizaina eskaintzen da edozein lanetarako. 642437753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. 631489919.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko: etxeak, soziedadeak... 602051567.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 617804844. Elene.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (erizain laguntzailea) eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. 633101852.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 608401590.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein motako lanak egiteko eta nagusiak gauzez zaintzeko. 692808337.

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 613215006.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 632642320.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643085244.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643766267.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 649623854.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 639107272.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da nagusia zaintzeko. Akreditazioarekin. 646206088.
- Taxi-lizentzia traspasatzen da Elgoibarren, jubilazioarengatik. Enpresa bezeroen-kartera Debabarrenan. 686234718.
- Emakumea behar da nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizitzen (interna). 607540772.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Korrika egiteko zinta salgai. Ia berria. 671258740.
- Labe txiki elektrikoa (Teka) salgai. Ia berria. Prezioa adosteko. 671506728. Valentin.
- Jatorrizko Trispace lo-zakua (Serval) salgai. Prezioa adosteko. 631849563. Gorka.

6.2. Eman

- Arrazoi pertsonalak tarteko, katu helduak arduraz adoptatzeko aukera eskaintzen dut. 688852207.

6.4. Bestelakoak

- Elkartea gastronomikoa bazkideen bila. Lokal ederra. Roljokoak, zine kluba...Estaziño. badokelkartea@gmail.com

BERRIAK

IA BERRIAK

0 KM

ESKAITZAK

SPECIAL DAYS NAIA CAR



AURRETIKO
HITZORDUA




OUTLET

UNITATE MUGATUAK

Azaroaren 13tik 18ra

KIA
Grupo
Naia Car

www.gruponaiacar.com
Apalategi 1 Eibar  943707033

Errekatxu Berri Bizigunea

Azken etxebizitza, garaje eta lokalak
eskuragarri Eibarko erdigunean



Bisita ezazu gure pisu pilotu berria

2 eta 3 logelako
etxebizitzak:
210.000€tik aurrera.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir